



# aballarri

## EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

### MAIATZAK 17, LGTBIQ+ FOBIAREN AURKAKO EGUNA

#### SEXU-ANIZTASUNARI LEKUA EGITEN

Egape ikastolan Elkarbizitza positiboa sustatzea dugu helburu eta Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitartean, jarduera ugari antolatzen ditugu urtero elkarbizitzaren inguruan, besteak beste, Maiatzak 17, LGTBI+ fobiaren aurkako egunaren ingurukoak. LGTBI+ fobiak gure ikastolan lekurik izan ez dezan, sentsibilizazio-ekintzak antolatzen ditugu gaia aurkezta eta hausnarketarako tarteak hartuz. Honela, errespetuzko jarrerak eta generoa eta aniztasun afektibo sexuala modu askean biziñen laguntzeko balioak transmitzen ditugu.

Aurten, HH-LHko ikasleak ezberdinak izatearen aberastasunaz hausnarta eta LGTBI+ bandera kolorez margotu dute. Bestalde, Yogurinha Borova artistaren "Sentipenak askatu" abestiarekin bideoklipa grabatuz eman diote amaiera egunari. DBHn, ikasleen "Batera Gara" taldea osatzen da ikasturtero eta irakasleekin elkarlanean jarduera ezberdinak antolatzen dira (muralak, kartelak, bideoak, dinamikak...).

Izan ere, askatasun begiradak nahi ditugu gure ikastolan, gure kaleetan eta baita gure gizartean ere. Egape Ikastolak askatasunean bizi diren pertsonak hezi nahi ditu, diren bezalakoak izan daitezen, diskriminaziorik gabe, epaituak izan gabe.



### 17 DE MAYO, DÍA CONTRA LA LGTBIQ+ FOBIA

#### DANDO CABIDA A LA DIVERSIDAD SEXUAL

*En Egape Ikastola tenemos como objetivo promover la Convivencia positiva y organizamos anualmente numerosas iniciativas en todas las etapas en torno al 17 de Mayo, día contra la LGTBI+ fobia. Para que la LGTBI+ fobia no tenga cabida en nuestra ikastola, planificamos actividades de sensibilización y garantizamos espacios para la reflexión. Así, queremos transmitir actitudes de respeto y valores que nos ayuden a vivir el género y la diversidad afectivo sexual de forma libre.*

*El alumnado de Infantil y Primaria ha reflexionado sobre la riqueza de ser diferente y ha pintado la bandera multicolor LGTBI+. También ha tenido la oportunidad de grabar un videoclip con la canción "Sentipenak askatu" de la artista Yogurinha Borova. En Secundaria, el grupo de alumnos y alumnas "Batera Gara" que trabaja por la coeducación con el profesorado, lleva a cabo diversas actividades (videos de sensibilización, reflexión, murales, carteles, dinámicas...).*

*Queremos miradas de libertad en nuestra ikastola, en nuestras calles y también en nuestra sociedad. Egape Ikastola educa personas que viven en libertad para que sean como son, sin discriminación, sin ser juzgadas.*





## FRANTSESA IKASTEKO AUKERA ESKAITZEN DUGU

Egape Ikastolan, Bigarren Hezkuntzako Hizkuntza Proietkuko helburu nagusienetako bat ikasle euskaldun eta eleanitzak garatzea da. Horregatik, euskara, gaztelania eta inglesaz gain frantsesa ikasteko aukera eskaintzen zaie gure ikasleei. Badira hogei bat urte ikastolak plangintza honi eutsi ziola eta urtez urte garatu eta gure proiektuan erabat uztartuta dugu.

Bigarren Hezkuntzako hasierako bi mailetan ikasleriaren %40ak gutxi gorabehera frantsesaren aldeko hautua egiten du, honela lehen hurbilketa izaten dute hizkuntza berri honekin. Halere, etapa bukaeran erdiak dira hautazko jakintzagai hau bukatzen dutenak, izan ere, ikasketa ibilbideak beste aukeraketa bat egitera bultzatzen dituelako ikasleak edota laugarren hizkuntza ikastearren zama handiegia egiten zaielako.

Frantsesa lau urtetan lantzen duten ikasleek gai izango dira beraien bizitzako eremu desberdinatan, egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko zein idatzizko hizkuntzaren erabilera egokia eta eraginkorra egiteko A2 mailan. Hori dela eta, hizkuntza eskola ofizialeko azterketa egitea proposatzen zaie ziurtagiria lortu ahal izateko. Era berean, lau mailetan frantsesa lantzen aritu diren ikasleei ikasitako guztia praktikan jartzeko aukera paregabea eskaintzen diegu Bordelera joanez pare bat egunez, mintza praktika egiteko eta bide batez, hiria ezagutzeo.



## OFRECEMOS LA OPORTUNIDAD DE APRENDER FRANCÉS

Uno de los objetivos principales del Proyecto Lingüístico de Educación Secundaria de Egape Ikastola es el desarrollo de alumnos y alumnas euskaldunes y plurilingües. Por eso, además del euskera, el castellano y el inglés, se ofrece a nuestro alumnado la posibilidad de aprender francés. Desde hace unos veinte años la ikastola mantiene este programa y año tras año lo hemos ido mejorando e integrando en nuestro proyecto lingüístico.

En los dos primeros cursos de la Educación Secundaria aproximadamente el 40% del alumnado opta por el francés, lo que le permite tener una primera aproximación a este nuevo idioma. Sin embargo, al final de la etapa es la mitad de este alumnado quien opta por esta materia, ya que el itinerario de estudios empuja a los alumnos y alumnas a elegir otras materias o bien porque el aprendizaje de la cuarta lengua es difícil de llevar.

Los alumnos y alumnas que cursan francés durante cuatro años serán capaces de hacer un uso adecuado de la lengua oral y escrita en los diferentes ámbitos de su vida, en el nivel A2. Por ello, se les propone realizar el examen de la escuela oficial de idiomas para poder obtener el certificado. Asimismo, ofrecemos al alumnado que se ha dedicado a trabajar el francés en los cuatro cursos una oportunidad única de poner en práctica todo lo aprendido yendo a Burdeos un par días para practicar la lengua y de paso conocer la ciudad.





# HEZIKETA FISIKOA ETA JARDUERA OSAGARRIAK

Jarduera fisikoa egiteak gizakion ongizatean duen onura ez da zalantzan jartzen. Honek guregan motibazioa eta autoestimua indartzen laguntzen digu eta gozamenerako bide dira jarduera hauek.

Heziketa fisikoaren helburua haurrek jarduera fisikoaren onurak eta bizenetako ezagutzea da. Gure herriko eta besteetako joko eta jolas tradizionalak zein modernoak edota kirol, ariketa eta adierazpeneko jarduera fisikoak ezagutzea, alegia. Bizenetako hauak eskainiaz bizenetako anitzak eta aberasgarriak biziko dituzte haur eta gaztetxoek.

Jarduera fisikoaren garrantzia jabetuta eta jarduera hauak praktikan jarri asmoz, Egape Ikastolako Heziketa fisikoko saioetan kirol eta jarduera horiek ezagutu eta biziak parada eskaintzen diegu gure ikasleei, ikastetxeen bertan eta baita ikastetxetik kanpo egiten ditugun ekintzetan ere. Jarduera anitzak eskainiz, ikasleek euren gustuko jarduerak hautatzeko aukera izango dute, etorkizunean gustuko duten kirol edota jarduera fisikoa egiten jarraitzeko aukera ere bai hortaz.

Kirol jardueren abanikoa zabaldu asmoz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituen jarduerak aprobetxatuz, azken urteotan bezala, aurten ere kirol ezberdinak probatzeko aukera izan dute gure ikasleek, besteak beste, herri kirol saioak, patinaia, igeriketa saioak eta eskaladako jarduerak, hain zuzen ere. Aurrerantzean ere, kirolak ongizatean duen garrantzia jabetuta, jarduera horiek edota bestelakoak eskaintzen jarraituko dugu Egape Ikastolan, gure ikasleek gozatu dutelako eta kirola eginez gozatzen jarraitza nahi dugulako.



# EDUCACIÓN FÍSICA Y ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS

*El beneficio de la práctica de actividad física en el bienestar de los seres humanos no es cuestionado. Esto nos ayuda a potenciar la motivación y la autoestima en nosotros y estas actividades son un medio de disfrute.*

*El objetivo de la educación física es que los niños y niñas conozcan los beneficios y vivencias de la actividad física. Conocer los juegos tradicionales y modernos de nuestro país y de otros, así como las actividades físicas de deporte, ejercicio y expresión. Con estas vivencias los niños, niñas y adolescentes vivirán vivencias variadas y enriquecedoras.*

*Conscientes de la importancia de la actividad física y con el objetivo de ponerla en práctica, en Egape Ikastola ofrecemos a nuestro alumnado la posibilidad de conocer y vivir estos deportes y actividades en las sesiones de Educación Física, tanto en las actividades que realizamos dentro como fuera del centro. La oferta de actividades variadas les permitirá elegir las actividades que más les gusten, así como seguir practicando el deporte o la actividad física que les guste en el futuro.*

*Con el objetivo de ampliar el abanico de actividades deportivas y aprovechando las actividades que ofrece la Diputación Foral de Gipuzkoa, al igual que en los últimos años, este año nuestros escolares han tenido la oportunidad de probar diferentes deportes, entre ellos, sesiones de herri kirolak, natación, actividades de patinaje y escalada. En adelante, conscientes de la importancia del deporte en el bienestar, seguiremos ofreciendo estas y otras actividades en Egape Ikastola, porque nuestros alumnos y alumnas han disfrutado y queremos que sigan disfrutando haciendo deporte.*



